

Felipe Urkolaren gorpua Pasaira

Deia, 1983-07-10.

Bost urte iraganak dira, joan den otsailean, Felipe Urkola jauna, kazetari eta idazle trebea, eta batez ere gizon osoa zena, gure artetik joan zitzaigunetik.

Balbino Barriolaren "Domini baitan", Hendaian, hil zen.

Dagoeneko alargundua, seme bakarra hil berria, itsutzen aspaldidanik hasia, Barriolatarren lagunarte gozoa eta erraina, Karmen Lertxundi bi bilobatxoekin ziren geratzen zitzaion familia, eta lagun eta miresle asko; horiek joaten gintzaizkion bixitara eta beti lelo bera: Franco hil zela bi urte pasatuak baziren ere, berrogei urteko exilioan geratzea nahiago zuen honez gero.

Herenegun, ostirala, uztailak zortzi, lekuz aldatu zuten bere gorpua errespeto handiz, merezi zuen bezala, eta barrukotasunean, Felipek nahi izango zuen legez; hor ziren Karmen, bi bilobekin, noski, geratzen zaizkion ondo-ondoak, eta bizpahiru lagun ere hurbildu gintzaizkion Lertxunditarrak Pasai San Pedroko hilerrian duten panteoira; aurretik, Xabier Aizarna jauna, Batzar Nagusiaren lehendakaria, eta Luis Mari Retolaza, Kontseilaria bera agertuaz gainera, ertzaingoaren errespetoko eskolta ere izan baizuen Don Felipek Hendaiaiko zubiaz geroztik.

Felipe Urkolaz bi hitz esatea ez da alferrikakoa izango.

Valbuena del Dueron jaio zen 1895ean; aita asteasuarra eta ama doneztebarra, nafarra, zituen.

Baina aita kontratista izaki, eta Valladolid aldean RENFEko lanetan zebilela jaio zitzaieten semea. Gero, Donostian hasi zen. Idazlearen sena gaztedanik erakutsi zuen; Felipe gaztea Rafael Picavearen *El Pueblo Vasco*-n sartu zen kazetaritzarako lanetan 1914ean; lau urte gero Eusko Ikaskuntza Oñatin sortu zenean, han zen ordezkari berezi gisa; dagoeneko, Donostiako egunkariaren idazkuntzako buru zen, eta urte bete barru, zuzendari orde. Ez zen gehiago Picaveagandik aldentuko: honekin irten zen exiliora, eta hasi zuen Pariseko egonaldi luzea; Rafael Picavea jaunak koloniar batekin zuen inprimategian hasi zen Felipe Eusko Jaurlaritzarako *Euzko Deya*, aldizkaria, eta OPE (Oficina Prensa Euzkadi) egunkaria egiten. Gogoan ditut Agirre Lehendakariak Urkolaren seriotasun eta profesionaltasunez egiten zituen gorazarreak.

Lan asko egin zuen Jaurlaritzaren zerbitzuan, bista jaisten hasi zitzaion arte.

Baina arnaskera bezain beharrezkoak zituen idazketa eta irakurketa, biak, utzi behar izan zituen. Caracas-en nintzela laguntzen nion bere artikulo batzuk hango *La República* egunkarian argitaratzen. Honeratu nintzenean, joaten nintzaion bixitara.

Hendaian, 83 urte zituela, itzali zitzaigun.

Orain bost urte joan den otsailean eginak.